

KONTABILITATEA ERAMATEKO EMPRESARIAREN EGINBEHARRA

- **Kontabilitatea eramateko enpresariaren obligazioa**
 - Enpresari statusaren obligazioa: banakako enpresaria (MK 25 art.), enpresari soziala (MK 26, 37 artk.)
 - Ez eramateak edo gaizki eramateak erantzukizun penala dakar (KP 320 art.)
 - Beharrezkoa da enpresariaren egoera ezagutzeko
 - Historikoki borondatezkoa zen

- **Kontabilitatearen funtzioa**
 - Interes handia dago legezko obligazioa izan dadin
 - Merkataria zein enpresariarentzat balore informatiboa dauka
 - Administratzaileen erantzukizuna neurtzeko baliabidea
 - Administrazio organotik kanpo dauden bazkide, langile eta hartzekodunak babesteko tresna
 - Estatuaren interesa

- **Merkataritzako Kodeko erregulazioa**
 - Kontabilitatearen arauak Zuzenbide publikoaren izaera daukate, nahiz eta Zuzenbide pribatuko arauak izan
 - Merkataritzako Kodeko 25 artikulutik 49ra osatzen dute erregulazioa, beti ere *irudi leiala printzipioari (true and fair view)* jarraituz (MK 34.2 art.)
 - 19/1989 Legeak, uztailaren 25ekoak, Europako kontabilitate araudia egokitu zuen:
 - Urteko Kontuen Zuzentaraua (IV Direktiba) (78/660/CEE)
 - Kontu Bateratuen Zuzentaraua (VII Direktiba) (83/349/CEE)
 - 19/1988 Legeak, uztailaren 12koak, Europako kontabilitate araudia egokitu zuen:

- Kontu Ikuskaritzaren Zuzentaraua (VIII Direktiba) (84/253/CEE)
- Merkataritzako Kodearen araudia (25 artikulutik 49ra)
- Merkatariaaren kontabilitate Liburuak (MK 25/33 – I Atala)
- Urteko Kontuak (MK 34/41 – II Atala)
- Sozietate Taldeen Kontu Bateratuak (MK 42/49 – III Atala)
- Kontabilitate Zuzenbidearen ordezkotako iturria, Erregelamendu izaera duen araua. Kontabilitate printzipioak jasotzen dira
- Kontabilitatearen Plan Orokorra (2007)
- Kontabilitatearen Plan Orokorra PYME-entzat enpresa txiki eta ertainentzat (2007): balantzea eta ondare garbiaren (neto) egoeraren txosten laburtuak dira.
- Europar Batasunak Nazioarteko kontabilitate arauak barneratu ditu 1606/2002 Erregelamenduaren bidez.
- Kontu Ikuskaritza eta Kontabilitate Institutua (ICAC)

- **Kontabilitate Liburuak**

- Kontabilitatea eramateko obligazioa (MK 25.1 art.)
- Ordenatua
- Enpresa jarduerari egokitua
- Eragiketen sailkapen kronologikoa
- Derrigorrezko Liburuak: Inbentario eta Urteko Kontuen Liburua (LICA)
- Egunkari Liburua
- Derrigorrezko Liburuak (MK 25.1 art.)
- Inbentario eta Urteko Kontuen Liburua (LICA)
 - Hasierako Inbentarioa
 - Balantzeak (hasierakoa, egiaztapenezkoa)
 - Amaierako Inbentarioa eta Urteko Kontuak
 - Balantzea (amaierakoa)
 - Galdu - Irabazien Kontua

- Ondare garbiaren egoera aldagarriaren txostena – enpresa guztiek burutu behar dute eta laburtua izan daiteke.
- Efektiboaren fluxua -Kaxa fluxua- (*cash flow*)
- Memoria

- Egunkari Liburua
- Enpresariaren borondatezko Liburuak
- Liburu Nagusia
- Merkataritzako sozietateen derrigorrezko Liburua (MK 26 art.)
- Akta Liburua (MK 26.1 art.)
- Akzio izendunen liburua (sozietate anonimoa eta akziozko sozietate komanditarioa)
- Bazkideen erregistro liburua (erantzukizun mugatuko sozietateak)

- Kontabilitate Liburuak eramatea
- Enpresariaren betebeharra da edo berak baimendutako pertsonena (MK 25.2 art.)
- *Liburuen* baldintzak:
 - *Kanporantzako* baldintzak
 - Kontabilitatea *liburuetan* eramatea (MK 27 art.)
 - Merkataritzako Erregistroan Liburuen legeztatu beharra (MK 27.1 art.)
 - *A priori*
 - *A posteriori*
 - *Barnerantzako* baldintzak (MK 29 art.)
- Kontabilitatea 6 urtez gorde egin behar da (MK 30 art.)
- Kontabilitatea sekretua da (MK 32 art.). Salbuespenak = konkurtsoak + kitapenak + ERE delakoak (sindikatuaren ordezkarien aurrean)

- Kontabilitatea frogabide bezala (MK 33 art.): *komunikazioa edo Liburuaren azalpena*

- **Urteko Kontuak (MK 34 art.)**

- Balantzea (MK 35 art.)
- Galdu-Irabazien Kontua (MK 35.2 art.)
- Memoria (MK 35.5 art.): Finantza egoeraren koadroa eta memoria laburtua
- Ondare garbiaren egoera-aldagarriraren txostena – enpresa guztiek burutu behar dute eta laburtua izan daiteke (MK 35.3 art.).
- Efektiboaren fluxua -Kaxa fluxua- (*cash flow*) (MK 35.4)
- ❖ Kudeaketa txostena
- ❖ 19/1989, uztailaren 25eko Legeak MK (42/49 artikulua) Europa Batasuneko legerira egokitzen du (VII Zuzen araua –83/349/CEE Kontu Bateratuen Direktiba-)
- ❖ Sozietate taldeen Kontu Bateratuak (MK 42 art.)

- **Kontabilitatearen printzipioak (35, 38 eta 39)**

- Neurritasun printzipioa (MK 38.1.c art.) = arriskuak + amortizazioak.
- Funtzionamenduan dagoen enpresa (MK 38.1.a art)
- Erregistro printzipioa = eragiketa ekonomiko guztiak jaso behar dira.
- Eskurapen printzipioa edo (salneurri historikoa) (MK 38.1.f eta 39 art.) = erosketaren prezioa
- Sortzapen –debengo- printzipioa (MK 38.1.b art.) = eragiketak eman diren ekitaldi ekonomikoan
- Sarrera eta irteeraren arteko erlazio printzipioa = diru sarrerak eta diru irteerak
- Balorazio bananduaren printzipioa (aktiboa eta pasiboa edo diru sarrerak eta irteerak ez konpensatzea) (MK 38.1.e, 35.6 art.)

- Jarraitasun printzipioa –uniformitate printzipioa- (MK 38.1.b art.) = hartutako irizpidea ez da aldatu behar
- Garrantzi erlatiboaren printzipioa = garrantzi handirik ez duten eragiketak ez dira aintzat hartuko.

- **Urteko Kontuen egiaztapena (ikuskaritza)**

- 1988ko Kontu Ikuskaritzaren Legea, uztailaren 12koa, Kontu Ikuskaritza VIII Zuzentaraua –Direktiba- (84/253/CEE) Espainiako Legeiara egokitu zuena
- Kapital Sozietateen Legea (2010)
- Kontu ikuskarien statusa
- Kontu ikuskaritza *arrunta* eta *apartekoa* –norbanako merkatari eta pertsona sozietateen kasuetan (MK 40 art.)-
- Kontu ikuskariaren *Txostena*:
 - Aldeko Txostena
 - Aldeko Txostena oharrekin
 - Aurkako Txostena
 - Ez onartua
- Kontu Ikuskariaren erantzukizuna